

IPURTATSA

Neurri txikiko ugaztun haragijalea da. 40cm inguruko gorputz luzanga, hanka sendo eta laburrak eta 18cm inguruko buztana du.

Ilaje arre iluna eta sabelaldea horixka du eta mutur eta begi inguruetan orban zuriak ditu.




Ur inguruetan bizitzea du gustuko: ibai, laku eta eremu hezeetan. Baina pinudietan, sastrakadietan eta soro inguruetan ere aurki daiteke.

Batez ere karraskariak eta anfibioak jaten ditu. Untxiak ere ehizatzen ditu.

Animalia gautar eta bakartia da. Udaberrian ugaltzen da. 2-9 kume erditzen ditu. Hauek 3 hilabete egoten dira amarekin.


1.-Idatz itzazu ondoren irakurri berri duzun testuaren ideia nagusiak.

2.-Bete hurrengo eskemako informazioa.



2. “LANA ANTOLATU”

Demagun zure irakasleak Karrantzaren inguruan lan bat egitea agindu dizuela. Taldeka egin behar duzue. Lana Karrantzaren inguruko informazioa bilatzean datza: Historia, Kultura, jaiak, artea... ondoren gelakoen aurrean azaldu beharko duzue



Lan hau ondo egiteko gelakideekin ondo antolatu behar zara. Ordenatu hurrengo ekintzak, lan ondo egiteko.

ORDENA	EKINTZAK
	Gela guztiaren aurrean lana ahoz aurkeztu.
	Banatu taldekideen artean bakoitzak egin behar duen lana.
	Taldekide bakoitzak egin duen lana besteen aurrean aurkeztuko du.
	Taldekide bakoitzak dagokien informazioa eskuratuko du.

3. "LEIREREN ESKOLA AGENDA"

Hauxe da Leirern agenda, kurtso hasieran irakasleak agenda bat eman zion eta ordutik eskolako lanak bertan apunatzen ditu baita gauza pertsonalak. Era honetan hobeto antolatzen da.

Otsailak 1 <i>astelehena</i>	Matematikako froga. 18:00-Saskibaloiko entrenamendua
Otsailak 2 <i>asteartea</i>	Dentista 17:00etan. Euskerako 14 eta 15. ariketa egin.
Otsailak 3 <i>asteazkena</i>	Ingeleseko aditzak ikasi present simple Erosi oparia Mikeli. 18:00 Saskibaloiko entrenamendua
Otsailak 4 <i>osteguna</i>	Bilatu informazioa ELIKADURA piramidearen inguruan. Ikasi Ingelesa, bihar da! 🤪
Otsailak 5 <i>Ostirala</i>	Ingeleseko azterketa-aditzak Mikelen Urtebetetzea, 11 urte!!!! 

1.- Leireren agendatik irakurri duzunetik idatz itzazu zein lanak dira eskolarekin zerikusia dutenak.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2.-Zein egunetan entrenatzen du Leirek saskibaloian? Aukeratu ZUZENA.

- a) Astearte eta ostiraletan.
- b) Astearte eta ostegunetan.
- c) Astelehen eta ostiraletan.
- d) Astelehen eta asteazkenetan.

3.-Ze egunetan du Leirek Ingeleseko azterketa? Aukeratu ZUZENA.

- a) Asteartean
- b) Ostiralean
- c)asteazkenean
- d)Astelehenean

4.- Leirek Ingelesko azterketa du ostiralean, baina zer egin beharko luke....Aukeratu

- a) Leire egun batzuk lehenago hasi da Ingelesa ikasten hobeto delako pixkanaka pixkanaka ikasten joatea.
- b) Leirek agendan apuntatu du baina azken eguneraino ez du ikasiko,
- c) Leirek erabaki du nahiz eta agendan idatzi ez duela ikasiko, gelan entzundakoarekin nahikoa duelako.

5.-Hau zure agenda balitz, zein lan idatziko zenituzke ostegunean?

.....

.....

4.-“El Rey León ikuskizuna”

Xabierren gelan jarduera dibertigarri bat burutu dute. Ikasle bakoitzak sarrera bat eraman behar zuen eta Xabierrek Madrilen ikusitako “el Rey León” ikuskizunaren sarrera eraman du.

TEATRO LOPE DE VEGA
C/ GRAN VÍA, 57 - Madrid
EL REY LEÓN, el musical que conmueve al mundo

FECHA: 30-05-2013 HORA: 20:30
Planta: CLUB ZONA: CLUB
PREFERENTE PREFERENTE
FILA: 002 BUTACA: 013
PRECIO: 69,90 euros

CIF: A81933772 LICENCIA SGAE

ESTA ENTRADA TE PERMITE EL ACCESO DIRECTO SIN PASAR POR TAQUILLA. SIN COLAS NI ESPERAS.

Sarrera arretaz begiratu ondoren hurrengo galderak erantzun:

1.-Nola deitzen da Xabierren sarreran agertzen den ikuskizunaren izenburua?

.....

2.-Zenbat balio izan du sarrerak?

.....

3.-Zein hiriko antzokian ikusi du?

.....

4.-Zein ilaran eta jesarlekuan eseri da Xabier?

.....

5.-Sarrera ondo begiratzen baduzu informazio ugari atera dezakezu.

Aukeratu zuzenak diren esaldiak.

- a) Ikuskizuna Bartzelonan ikusi ahal izan da.
- b) Ikuskizuna arratsaldeko 20.30etan hasten da.
- c) Nahiz eta sarrera izan derrigorrez itxaron beharko duzu takillaren ilaran.
- d) Ikuskizuna 2013ko maiatzaren 30ean izan da.

6.-Familia bat ikuskizuna hasi eta 10 minutu beranduago sartu zen. Zein ordutan sartu ziren?

- a) Familia hau arratsaldeko zortziak hamar gutxitan sartu zen.
- b) Familia hau arratsaldeko bederatziak laurden gutxitan sartu zen.
- c) Familia hau arratsaldeko bederatziak hogeit gutxiagotan sartu zen.
- d) Familia hau bederatzieta sartu zen.

7.-Sarrera 50€ko bi billetekin ordaindu bazuen, zenbat diru itzuli zioten Xabierri?

.....

5.- “NI, ZU GU”

Gelan irakasleak ariketa berri bat proposatu digu gure artean hobeto ezagutzeko. Ikasle bakoitzak bere gelako kideei 1etik 4erarteko puntuak eman behar dizkio lagun ona den edo ez arabera. Hurrengo taulak adierazten du gelako ikasle bakoitzak guztira jaso dituen puntuak. Lagunen izenik ez da ageri grafikoan, 1etik 12 ra ko zenbakiak, gelan 12 ikasle baikara.

